



PHONE BLOCK

THE NEW MOBILE ERA
STUDY STABLE AND STILLY

PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Azken hilabete hauetan egin dugun proiektua, aplikazio batean zentratzen da. Aplikazio honek, mugikorrarekin denbora gutxiago pasatzea du helburu. Bide batez, kontzentratzeko arazoak dituzten pertsonendako oso egokia izango da. Hala ere, honek ez du esan nahi edozein pertsonak aplikazio hau ezin duenik erabili. Azken finean, gaur egun, geroz eta nabarmenagoa da gizarteak oro har egiten duen mugikorren erabilera. Horregatik, modu interesgarri batean mugikorra gutxiago erabiltzeko aukera ematea bilatzen dugu proiektu berritzaile honekin

Horretarako, erabiltzea pentsatu dugun funtzionamendua) txapelketa bezalako bat izatea izan da, non lagunekin, familiarekin edo ezagunekin lehiatu ahal duzun. Lehiatzea nahi duzun pertsonekin liga antzeko bat sortzeko aukera izango duzu aplikazioan bertan. Honen helburua ahalik eta puntu gehien lortzea izango da. Puntuak, mugikorrak itzalita ematen duen denboraren arabekoak izango dira. Hau da, geroz eta denbora gehiago izan mugikorra itzalita orduan eta puntu gehiago lortuko dira. Astero puntuak batuko dira, eta irabazle bat izango da.



Azken finean, oso ideia interesgarria iruditu zitzaigun gure gizartearen egoera dela eta. Mugikorrak gauza on asko emateaz gain, denbora asko ere kentzen digu eta askotan erabilera okerra ematen amaitzen dugu askok. Sortu dugun aplikazioari esker, arazo hau murrizteko aukera izango dugu. Gainera, txapelketa baten itxura ematen den heinean, modu entretenigarri batean egitea ahalbidetzen du. Proiektu pilotoa Oñatin hasi, hemen zabaldu eta hurrengo pausua Debagoienako herri ezberdinetara zabaltzea izango genuke helburutzat, betiere hasireako proiektuak duen arrakasta mailaren arabeko pausuak emanda.